



Alberto Ladron Arana
PIZTIAREN BEGIAK

Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abailan abiada handian, ahalean	Animaliak ez zuen zirkinik egin mercedesa abailan hurbildu bitartean...	171
abaildu erori bezala, makurtu	Pisu handi bat sentitzen zuen bularrean, biriketako airea porlan bihurtu balitzaio bezala. Azkenean, atzean zeukan aulkian abaildu zen.	12
agure adineko gizonezkoa	Agureak hariak mugitu zituen...	247
ahapeka xuxurlaka, isilean	ON botoia sakatu eta hitz batzuk erran zituen ahapeka .	180
ahopean xuxurlaka, isil xamar	—Unetxo bat, mesedez —neskak telefonoaren tekla bat sakatu eta ahopean hitz egiten hasi zen.	20
aitzindari gidaria, aurretik dabilena	Xabierrek gogora ekarri zuen airea kutsatzen zuen tentsio hura, elektrizitatea bezalakoa, geroago lehertuko zen ekaitzaren aitzindari .	50
aldagailu alternadorea	—Autoaren aldagailua loka zegoen: punto muertoan.	136
aldarte umorea, jarrera	Haren aldarte berritsuagoa bilatu dut kontu pertsonalagoak jorratzen saiatzeko.	76
aldendu urrundu	...erreko balu bezala aldendu zuen Dasilvak telefonoa belarritik.	306
aldrebesena arraroena	—Denetarik pentsatu nuen. Halako egoera batean hipotesirik aldrebesenak bururatzen zaizkizu.	96
alu ergela, tentela	Gazte alu hauek botilak supermerkatuan erosi eta karrikan edaten ditiztek.	55
amarru maltzurkeria, azpikeria	Mourek asmatu trikimailu bat, bera urduritzeko amarru ergel bat.	158
amorante maitalea	Baina motiboez ari garela, zuen adiskideetakoren batek iradoki zidan zure emazteak amorante bat izan zezakeela.	137
amore eman errenditu, etsi	Ezezagun hari amore ematen ari zitzaiolako...	238
anabasa nahaspila	Ez dut ezer botatzeko ohiturarik, baina, horrexegatik, paper anabasa izugarria dut. Garrantzitsua da telefono hori?	44
antzeman sumatu, igarri, nabaritu	Jonek zalantza antzeman zion Juliaren ahotsari.	316
apaldu murriztu	Apaldu ahotsa, arraioa.	236
apareju trastea, pieza, alproja	—Garbi dago Dasilva hori apareju ederra dela, baina ezin diozu zure familiaren heriotza egotzi.	117
arindua lasaitua	Ez zekien zer sentitu, dezepzioa ala arindua . "Logalea besterik ez diat sentitzen", pentsatu zuen.	80
arraio deabrua (kexuzko adierazpena)	Apaldu ahotsa, arraioa .	236
arrasto aztarna, lorrata, seinalea	Ez zuen inor ikusi. Gabriela eta Pilar hizketan ari ziren sukaldean. Mariñaren arrastorik ez.	310
aseptiko garbi-garbia, esterilizatua	Hormen koloreak eta apaingarri abstraktuek bake aseptiko bat transmititzeko pentsatuak ziruditen.	43
atalondo ezkaratza, sarrera	Motorraz ibiltzeko arropak erantzi eta atalondoan eskegi zituen. Korridoreko ateei begiratu zien berriz.	30
atorra alkandora	Bola bat egin zuen odolez zikinduriko atorra eta prakekin.	142
atxiloketa preso hartze	Atxiloketak hasi zirenean...	243



atxur mozkorra	Ez da harritzekoa ezer ez oroitzea, egun hartan zeneraman atxurra kontuan hartuta.	162
auresentipen premonizioa, gertakizun denaz	—Ez. Zorionez, auresentipen horiek filmetan bakarrik gertatzen dira. Ez nuen inorekin hitz egiteko gogorik, hori zen dena.	97
aztoratu kezkatu, larritu	Gertaturiko guztiaz pentsatu behar zuen, baina burua aztoratu egi zeukan.	131
babarrun indaba	Hiru egun lehenagoko babarrun eltzea atera zuen.	12
baretu lasaitu	Seguru nago zinemarena amaren ideia izan dela atzoko nire nahigabea baretzeko .	82
bihurgune kurba	Belateko mendateko bihurgune batean gertatu zen.	234
bihurkina destornilagailua	Gizonak zerbait seinalatu zuen bihurkinaren puntaz.	237
birao hitz gorria, maldizinoa	Iratzargailua bilatu zuen haztamuka, baina botoia behin eta berriz sakatuta ere txirrina ez zen isildu. Birao bat hortz artean, burua atera zuen tapakien azpitik.	17
borra mailua	—Zer egin behar duzu borra horrekin, moñoña horrek?	125
bortitz gogorra, indartsua	Nahiko modu bortitzean , egia erran. Zein zen Moure jaunaren egoera zure enpresan?	299
brastako mugimendu arin kontrolgabea	Brastako bat egin behar izan zuen bolantearekin bere karrikaren hasierako zaborrontzien kontra ez joateko.	156
brodaturik hariz markatuta	—Nire izena darama atzealdean brok... brod... — Brodaturik —lagundu zion Marianok.	40
dilindan zintzilik	Esaldia dilindan gelditu zen egongelako airean.	239
doako dohainik direnak	...zaborra besterik ez zuen aurkitzen postontzian. Propaganda, ordain agiriak eta doako aldizkari hutsalak.	11
dolu pena	—Auto istripu batean hil ziren. Dasilvaren aurpegiak dolu keinu neurtu bat azaldu zuen.	22
egotzi aurpegiratu	—Garbi dago Dasilva hori apareju ederra dela, baina ezin diozu zure familiaren heriotza egotzi .	117
eltze lapikoa	Hiru egun lehenagoko babarrun eltzea atera zuen.	12
entzungor jaramonik egin gabe	Balak xuxurlatzen zizkion entzungor , eskailerak lasterka jaitsi eta autoan sartu zen.	150
erran esan	Zergatik ez zion ezer erran ? Zeren beldur zen?	16
espetxe kartzela	Espetxean nengoela etengabe pentsatu nuen...	244
estimatusa eskertzen da	Estimatusa dago . Zorionez, herritarren laguntza jasotzen dugu gure gabezien osagarri.	303
estura ezinegona, egoera larria	Drogak arindu egin zion etxera itzultzean sentitu ohi zuen estura lausoa.	156
etsi amore eman	Haurrak telefonoa berreskuratu zuenean ez zuen etsi filma amaierara arte kontatu arte.	92
ezbehar istripua, zoritxarra	Zer dakizu nire familiaren ezbeharraz ?	238
ezustean ustekabea, jakin gabe	Ezustean azaldu eta istorio zahar horiek hizpidera atera nituen.	100



gabezia falta	Estimatura dago. Zorionez, herritarren laguntza jasotzen dugu gure gabezien osagarri.	303
ganoragabekeria baldarkeria, tentelkeria	Badaki nola jartzen nauten kabroi horren ganoragabekeriak .	82
gerizatu babeatu, aterpea bilatu	Jendeak nahiko lan du bere burua zaparradatik gerizatzen .	175
gonbito oka egitea	Kolore iluneko gonbito bat biltzen zen poltsaren behealdean.	178
haga langa	...dardarka, lurtean sakabanaturiko bihurkin, mailu eta giltzak jaso eta bizkar zorrorra bihurtu zituen. Burdinazko haga bat hartuta, hilobira hurbildu zen.	8
harat-honat gora eta behera	Jon amorratu egin zen morroi hura bere etxean harat-honat ikusita.	236
hatsanka arnasestuka	Hatsanka iritsi zen Mirenen karrikara, Mirenen aitaren Audia urruntzen ikusteko garaiz.	18
haztamuka ukituaz, ikusi barik	Iratzargailua bilatu zuen haztamuka , baina botoia behin eta berriz sakatuta ere txirrina ez zen isildu. Birao bat hortz artean, burua atera zuen tapakien azpitik.	17
herrestan narras, arrastaka	—Hara nor agertu den! —erran zuen. Hitzak herrestan ebakitzen zituen.	140
hilobi tumba	Sandraren hilobia suntsitu duzu, putakume arraioa.	263
hizpide hizketa-gaia	Neskak pozik onartu zuen. Ez zuen hizpidera ekarri goizeko hutsa. Lan elkarriketaz galdetu ziotenean...	38
hizpidera atera hizketa-gai bihurtu	Ezustean azaldu eta istorio zahar horiek hizpidera atera nituen.	100
hutsal baliogabea	...zaborra besterik ez zuen aurkitzen postontzian. Propaganda, ordain agiriak eta doako aldizkari hutsalak .	11
idazpuru goiburua	Sinadura kiribildu baten azpian F.J. Dasilva irakurtzen zen. Idazpuruan , enpresaren izena eta Iruñea hegoaldeko industriagune bateko helbidea.	11
igarle asmatzailea	Pantailan igarle lodi batek espantuka mugitzen zituen besoak.	184
iradoki sugeritu, onbeharrez esan	Baina motiboez ari garela, zuen adiskideetakoren batek iradoki zidan zure emazteak amorante bat izan zezakeela.	137
iruzkin komentario	Eguraldiari buruzki iruzkinak ...	260
izkin egin libratu, itzuri, saihestu	—Ez da horren atsegina —Mirenen ukondokadari izkintxo eginez , ohetik atera eta berokiko sakelan bilatu zuen.	83
jorratu landu, ekin	Haren aldarte berritsuagoa bilatu dut kontu pertsonalagoak jorratzen saiatzeko.	76
kakaztu hondatu, alferrik galdu	Eskaintza eta eskaera. Bai poetikoa. Gauzarik ederrenak ere kakaztu egin behar.	15
kalaka berriketa	Dasilva begira gelditu zitzaion eta tximino haren kalaka magiaz bezala isildu zen.	183
karrankaria soinu bizia	Mariñak barre karrankaria bota zuen.	184
karrika kalea	Korrika abiatu zen, goizeko trafikoak hartutako karrikak ahal bezala zeharkatuz. Hatsanka iritsi zen Mirenen karrikara...	18
kinka ataka, estualdia	Hala ere, nahiko natural jokatu zuen kinka hartan. Odola hotz eduki zuen elkarriketa osoan, zentzuzko erantzunak eman zizkion nazkante hari.	34
kiribildu bihurritua	Sinadura kiribildu baten azpian F.J. Dasilva irakurtzen zen. Idazpuruan, enpresaren izena eta Iruñea hegoaldeko industriagune bateko helbidea.	11



koka kokaina	Kokaren ontzitxoia berriz atera eta tiro pare bat hartu zuen.	89
kokoriko pikotxean, hankak doblaturik	Arnasa berdindu bitartean, hilerriko itzalei so egon zen, gainalde estuan kokoriko .	5
konketa garbitzeko lekua, harria	Konketan aurpegia garbitu, besazpiak freskatu eta beste atorra bat hartu zuen armairutik.	311
kordokatu alderoka ipini, tente egon ezinik	Zorabio arin batek kordokatu zuen...	172
koskor hatz juntaturak	Hainbesteko indarraz non zauritu egin baitzituen hatz koskorrak .	186
kunplimendu hitz politik esatea	—Doktoretza bat behar da gero zure kunplimenduak ulertzeko —Mirenen ahotsak doinu iradokitzaile bat hartu zuen—.	68
lagin analizietarako erakusgarria bat	Nik Sandraren ADNaren lagin bat besterik ez dizut eskatzen.	252
lakar latza	Azal lakar baten azpian sekretu gozo bat gordetzen duelako.	190
lanbrotsu lainotsua, iluna	...Mourek doinu lanbrotsuan , eta Xavier ohartu zen...	174
lastaira koltxoia, oherakoa	Koadroak, komuneko tanga□ lastaira ...	181
lerratu irristatu, labaindu	Haizeak pagoen adar biluzien artetik lerratzen zuen elurra.	103
likatsu itsaskorra	Mugikorra mahai gainean utzi zuen. Likatsu zegoen izerdiagatik.	146
lipar momentua, unea, eretia	Lipar batez, Jonek erakusten zion argazkiari so egin zion Dasilvak.	26
liseritu irentsi, bereganatu	Une luze batez bihotzaren taupadak besterik ez zuen entzun, izugarrikeria hura liseritzen zuen bitartean.	136
loka solte, finkatu gabe	—Autoaren aldagailua loka zegoen: punto muertoan.	136
mahuka manga	Dasilvak mahuka motzeko polo bat janzen zuen.	26
makurtu konkortu	—Eman dezagun —Jon aurrerantz makurtu zen beroturik.	118
maluta elur-tanta	Elurra hasi zuen, maluta bakan batzuk besterik ez, baina errepedearen egoerak kezkaten zuen Jon Ander.	81
mamuzko fantasma baten gisakoa	Iriarteko etxeko hotsak entzuten zituen, urrun, mamuzko .	143
melenga lar gozoa, gogaikarria	Hilobirantz abiatu zen, zambuluka hasieran, tinkoago berehala. Hezetasun melenga bat zegoen airean.	7
mesanotxe ohearen alboko mahai txikia	Dasilva haren eskutitza ikusi zuen mesanotxearen gainean. Amorrua piztu zitzaion.	18
miatu arakatu, arretaz bilatu	Sandraren gauzak miatu nituen, haren desagerpena azal lezakeen zerbaiten bila, baina alferrik.	95
moñoña potxola	—Zer egin behar duzu borra horrekin, moñoña horrek?	125
mortu eremu hutsa	Espaloi mortuetan barrena ibili zen gaueko aire hotzaz gozatuz.	182
motibo arrazoia	Zer motibo dira horiek?	252



nahigabe atsekabea, disgustua	Seguru nago zinemarena amaren ideia izan dela atzoko nire nahigabea baretzeko	82
narritadura kitzikapena, exzitazioa	...–Erran zuen mirenek, Sandraren edertasunaren aipamenak eragindako narritadura ahotsean–.	86
nazkante jasaezina, antojugarria	Hala ere, nahiko natural jokatu zuen kinka hartan. Odola hotz eduki zuen elkarrizketa osoan, zentzuzko erantzunak eman zizkion nazkante hari.	34
ohartu konturatu, jabetu	...ohartxoak pasatzen nizkiela ohartuz gero?	244
oldartu eraso keinuan hurbildu	Berriz ixteko prest ezezaguna oldartzen bazitzaion.	196
orein belarjale adarduna ('ciervo')	Orein bat zegoen autobidearen erdian.	171
pago zuhaitz mota ('haya')	Haizeak pagoen adar biluzien artetik lerratzen zuen elurra.	103
patu zoria, destinoa	Bakoitzak bere patua bilatzen zuen.	182
perlesiaturik elbarriturik	Ideiak perlesiaturik eduki zuen segundo batzuek.	6
peto-peto erabatekoa	Segurtasun enpresa bat du, tipo errespetagarriaren itxura peto-petoa .	61
putz airea bota	Xabierrek putz egin zuen...	253
sabai gainaldea	Gela gorritz margoturik zegoen eta sabai oso baxua zuen.	166
sakabanatu barreiatu	...dardarka, lurrean sakabanaturiko bihurkin, mailu eta giltzak jaso eta bizkar zorrora bihurtu zituen. Burdinazko haga bat hartuta, hilobira hurbildu zen.	8
sakelaratu poltsikoratu	Saltzaileak ezin zuen poza ezkutatu billete sorta sakelaratu zuenean.	156
sarraila ireki-ixteko mekanismoa	Ez zen erraza eskularruekin lan egitea, baina atariko sarraila oso erraza...	176
sentiberago sentikorrago, bigunago	Baina langabe izateak aldatu egiten dizu ikusmoldea, sentiberago bihurtzen zaitu porrotarekiko.	111
sutan egon haserre, sumiduta	Sutan egotekoa zen!	248
tanga tankea, ur ontzia	Koadroak, komuneko tanga , lastaira...	181
tapaki manta	Iratzargailua bilatu zuen haztamuka, baina botoia behin eta berriz sakatuta ere txirrina ez zen isildu. Birao bat hortz artean, burua atera zuen tapakien azpitik.	17
tinko tente, ziurtasunez	Hilobirantz abiatu zen, zambiluka hasieran, tinkoago berehala. Hezetasun melenga bat zegoen airean.	7
traste tramankulua	Traste alu hura itzaltzea ahaztuko zitzaidan.	250
trikimailu amarrua, azpijokoa	Mourek asmatu-rik trikimailu bat, bera urduritzeko amarru ergel bat.	158
trumilka multzoka, pilaka	Halako batean ikastolako atea zabaldu eta haurrak trumilka ateratzen hasi ziren. Berehala ikusi zuen Jonek Anderrren ile kizkurra.	39
txosten informea	Dasilvaren txosten psikologiko bat duzu?	245
ukabila esku itxia	Dasilvak ukabilaz jo zuen mahai gaina. Zergatik oroitu behar zuen orain aitaz?	32



ukondokada beso ukaldia, kolpea	— Ez da horren atsegina –Mirenen ukondokadari iskintxo eginez,ohetik atera eta berokiko sakelan bilatu zuen.	83
urtu funditu	Ez zuen zentzurik garuna urtzeak .	160
utzikeria zabarkeria, abandonoa	Birao bat xuxurlatu zuen Jonek. Utzikeriaren poderioz etxea hondatzen ari zitzaion.	121
xarma enkantua, erakargarritasuna	Munduko xarma guztia...	253
xuxurlatu ahapeka esan, isilean	Birao bat xuxurlatu zuen Jonek. Utzikeriaren poderioz etxea hondatzen ari zitzaion.	121
zanbuluka alderoka, ez artez	Hilobirantz abiatu zen, zanbuluka hasieran, tinkoago berehala. Hezetasun melenga bat zegoen airean.	7
zanpatu zapaldu, oinperatu	“Dasilva itzuli duk”, pentsatu zuen,”putakumeei barrabilak moztu eta muturrak zanpatzera ”.	87
zartako kolpe latza, danbatekoa	Bulegotik atera eta zartakoz itzi zuen atea.	191
zipriztindu buztindu	Euri tanta batzuek aurreko kristala zipriztindu zuten	156
zirkinik ez egin mugimendu txikirik ere ez	Animaliak ez zuen zirkinik egin mercedesa abailan hurbildu bitartean...	171